



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Inperialismo gordina

AEBek “operazio militarrek” egin dituzte munduan 214 urtetan; 21 urtetan baino ez dira etxean gelditu. Bigarren Mundu Gerraren ostean, beren indar armatuek herrialde piloia eraso dute. Ez dira gutxi ere bultzatu eta babestu dituzten estatu kolpeak. Munduko potentzia nagusiak zuzenean edo zeharka hil dituen pertsonak milioika dira.

Historia lazgarri horren amaiera Obamarekin etor zitekeela pentsatu zuten batzuek. Haatik, horiek ez ziren Obamarengan “esperantza” jarrita zuten bakarrak. AEBetako industria militarren eta interes geostrategiko-inperialen “zaintzaile” bilakatu diren *neocon* batzuen usteetan, Inperioaren proiektu espansionistarekin aurrera jarraitzeko Obamaren irudia Bushena baino eraginkorragoa izan zitekeen. Aldez aurretik, Bushen administrazioan lan egin zuten kanpo politikako aholkulari eta karguak Obamaren administrazioan daude.

Ez da erraza Mendebaldean kritikatzeko, honek hedabideen eta propagandaren kontrol handia baitu: alemaniar kazetari batek argitaratu berri duen liburuan esplikatzen duenez, AEBetako inteligentzia zerbitzuek kazetari alemaniarrek erosten dituzte

Afganistaneko eta Irakeko gerra eta okupazio militarrek sortu zuten irudi-kalte konpontzeko Clintonen garaian erabilitako estrategietara bueltatu behar zen, hau da, zuzeneko esku-hartze militarra baino, herrialdeetako erregimen aldaketa bultzatzeko estigmatizazio propaganda kanpainak indartu, ezegonkortasuna subentzionatu eta, behar izanez gero, oposizioeko talde armatuak babestu eta armatu. Metodologia horren azken fasea herrialdeen bonbardaketa izan ohi da. Hain zuzen ere, 1999an Jugoslavian egin zuten bezala NBERen inolako mandaturik gabe.

Estrategia horren jokoa arriskutsua da: “Askotan nire etsaien —eta lagunentzako— etsaiak subentzionatu eta armatu egiten

ditut, beste batzuetan armatu ditudan horiek nire beste etsai batzuekin aliantzak egin ditzakete; babestu eta armatu ditudan horiek goizetik gauera nire etsaiak bilaka daitezkeela baztertu gabe”. Esaterako, eta besteak beste, galde diezaietela Saddam Husseini edo Osama bin Ladeni.

Berriki, John McCainek telebista saio batean azaldu du AEBetako zerbitzu sekretuek Obamari eskatu ziotela ISIS (Estatu islamikoa) eta Siriako matxinatuak armatzeko, baina orain Siriako gudaren itzalpean hazitako ISIS omen da munduko arriskurik handiena. Aitzakia ederra bilatu dute Sirian bonbardaketak egiteko, bertako gobernuaren eta NBERen inolako baimenik gabe.

Obamak sei urte baino gutxiago behar izan ditu zazpi herrialde independente bonbardatzeko eta hiruzpalau estatu kolpe bultzatu eta babesteko. Ez da marka txarra, baina mugimendu eta alderdi politiko “bakezale” eta “antiinperialista” gehienek nekez kritikatu dituzte gertakariok. Errusiak egin —eta egin ez dituen— ekintzak gogorri kritikatzeko dira —moral bikoitz eskandalagarria erabiliz—, ordea, berdinak edo antzekoak Mendebaldeak egiten dituen txalotu, ezkatatu edo era askoz ere epelagoan kritikatzeko dira.

Ez da erraza Mendebaldean kritikatzeko, honek hedabideen eta propagandaren kontrol handia baitu: alemaniar kazetari batek argitaratu berri duen liburuan esplikatzen duenez, AEBetako inteligentzia zerbitzuek kazetari alemaniarrek erosten dituzte. Aldiz, Inperioaren arerioak diren bigarren edo hirugarren mailako potentziak kritikatzeko ez da zaila. Adibidez, Errusia kritikatzeko kasu askotan onuragarria izan daiteke kritikatzeko duenarentzat, izan ere, Inperioaren etsaiak kritikatzeko baduzu, akaso etxean dituzun antiinperialista “astun” batzuen kritikak jasoko dituzu, baina zure begirada munduan badago, badakizu Errusia kritikatzeko sarituta dagoela. Nazioarteko politikan Mendebaldeko Inperioaren ISO (Estandarizazio Nazioarteko Erakundea) azterketa pasatzeko bezala da, konbalidatu eta “normaldu” egiten zaitu. ■

